

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Asteartea, 2012ko uztailaren 3a. IX. urtea. 2.377. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



Lehen argazkian Amarozko dantza taldea eta, bestean, Urkizuko haurren jolasak. E. SARASOLA-A. IMAZ

## Jon Jaunarena pilotari leitzarra lehen mailan ariko da datorren urtean

Joseba Ezkurdiari 22-16 irabazi zion gazteak; Herriarteko Txapelketan Berrobi ariko da finalean, Hernaniren kontra 06

## Pello Odriozolaren askatasuna aldarrikatu dute

Tolosan manifestazioa egin dute, batetik, eta, bestetik, Zuerako espetxera joan dira; Etxerat elkarteak batzarra egin du, Leidorren 03

## Zizurkilgo Alatzne Etxeburuak egin ditu sega lanak azkarren

Herenegun Zizurkilen jokaturako Gipuzkoako Azkartasuneko Sega Txapelketa irabazi du; mutiletan Legorretako Esnaola izan da garaile 07

## Agurtu dituzte festak

Sanjoanak eta gero San Pedro jaiak ospatzeko unea iristen da eskualdeetan, eta hori pasa den asteburuan egin dute Areson, Asteasun, Leaburun eta baita Urkizu eta Amarotz auzoetan ere 04



XVI. HITZA Udako argazki lehiaketa

Bidali zure argazkia  
[thargazkiak@hitza.info](mailto:thargazkiak@hitza.info)  
helbidera!



Akademia  
**Pausoka**

UZTAILA eta ABUZTUA

'First Certificate Exam'  
Klase intentsibok

Errefortzu klaseak  
Fisika, Kimika, Matematika...

IRAILA

Kurso hasiera  
2012-2013

Materia guztiak  
Mota guztiak

Martin J. Iracola, 2- beheka 20400 Tolosa (Gipuzkoa)

943.249.161 | 686.971.962

# Irailean bilduko dira berriz ere adingabeen zentroaz hitz egiteko

Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak eta bizilagunak biltzen ari dira kokalekuaz hitz egiteko, besteak beste

Asier Imaz Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak Zizurkilen izan ziren iragan ostegunean, auzotarrekin batera adingabeen zentroaren inguruan hitz egiteko. Bilera adostasunik gabe amaitu zen, baina bi aldeek irailan batzar berri bat egiteko konpromisoa hartu zuten.

Zizurkilgo Udala bitartekari lanak egiten ibili da, eta bera izan zen auzotarren eta aldundiko ordezkarien arteko bilera lotu zena. Bizilagunen esanetan, osteguneko batzarrean, udala ordezkatzuz Nerea Lizarraga alkate ordea egon zen eta Foru Aldunditik, aldiz, Ander Rodriguez Gizarte politikako burua, Jon Lasa Haurren Babeseko Zuzendari Nagusia eta hainbat teknikari.

Adingabeen zentroaren inguruko bizilagunen ordezkariak, lehenik eta behin, gonbidapena eskertu nahi izan zuten. Ondoren, euren esanetan, gunearen kokalekua aztertu eta beste toki egokiago batetara eramatea aztertu beharko litzatekeela defendatu zuten: «Erabaki hau, bost urteko esperientziarekin eta dokumentazioarekin justifikatu genuen».

Adingabeen zentroaren leku aldaketa eskatzeko, legean eragitea eskatu zuten bizilagunek, osteguneko bileran: «Oraingo sistema adingabeez bakarrik ari da, eta bizilagunekin ahaztu egiten da. Guztiz konbentzitu gaude etxebizitzak bakarrekote etxe batean bizilagunekiko eragina txikiagoa izango zela. Horregatik, 131/2008 uztailak 8ko dekretuan aldaketa eskatu genuen, horrelako zentroak zein motatako exekutuan egon daitezkeen azaltzen den puntuan».

Hotsgabetzea, zaintzaile kopu-



Zizurkilgo adin txikikoen zentroa aurkitzen den auzoa. A. IMAZ

rua gehitzea eta etxe aldaketak azkartzea moduko zuzentze neurrietan ez dutela sinesten ere gaineratu zuten, «gatazkak daude nean ez baitute ezertarako balio». Bizilagunen esanetan, Gipuzkoako Batzar Nagusietan kasua artxibatua izan da, eta erabaki honen aurkakotasuna ere azaldu zuten batzarrean: «Oso tristea da gai sozial eta politikoko baten barnean murgildurik egotea eta erabaki politikoko batengatik kasua artxibatzea; asko sentitzen dugun».

Arrazoi guzti hauengatik, bizilagunen ordezkariak argi azaldu nahi izan zuten bide administratibotik aurrera jarraituko dutela, «biztanle moduan gure eskubidea delako, epaitegien alde profesionalen esku utziko dugun».

Bizilagunen esanetan, azalpen hauen ondoren, kokalekua mantentuz sistema nola hobetu zitezkeen aztertzen hasi ziren, irtenbide bat aurkitu nahian: «Foru Aldundiak proposamen batzuk

egin zituen, baina bizilagunok azkartzea moduko zuzentze neurrietan ez dutela sinesten ere gaineratu zuten, «gatazkak daude nean ez baitute ezertarako balio». Bizilagunen esanetan, Gipuzkoako Batzar Nagusietan kasua artxibatua izan da, eta erabaki honen aurkakotasuna ere azaldu zuten batzarrean: «Oso tristea da gai sozial eta politikoko baten barnean murgildurik egotea eta erabaki politikoko batengatik kasua artxibatzea; asko sentitzen dugun».

Arrazoi guzti hauengatik, bizilagunen ordezkariak argi azaldu nahi izan zuten bide administratibotik aurrera jarraituko dutela, «biztanle moduan gure eskubidea delako, epaitegien alde profesionalen esku utziko dugun».

## Bildu eta EAJren mozioa

Zizurkilgo Udaletik gaia gertutik jarraitu dute, alde batetik, bitartekari lanak egiten ari direlako, eta, bestetik, osteguneko batzarrean bertan egon zirelako. Gai honen inguruan eskumenik ez dutela aipatu dute udaletik, eta euren esku dagoen guztia egi-

ten ari direla. Puntu honetan, udalbatzak bere garaian onartu zuten mozioa aipatzen dute. Mozio hau Bilduko eta EAJko hautesiek adostu zuten, eta udalbatza- ren bilkuran aho batez onartu zen, «polemika gehiago ekidin nahian».

Mozioa ondorengo hiru puntu hauek osatzen dute: «Gipuzkoako Aldundiarena da bai eraikina eta baita bere kudeaketa ere. Zizurkilgo Udalak ez du eraikinean inongo eskumenik; eta beste ezereen gainera, bizilagunei laguntzeko prest egon dela eta egongo dela beti udala. Bai bizilagunen bizi-baldintzak eta baita zentroaren funtzionamendua hobetzeko ere aldundiarekin bitartekaritza egiteko prest gaude, eta bide horretan aldundiari eskatzen diogu, azter ditzala zentroaren funtzionamendua hobetzeko neurriak, besteak beste, ahal den neurrian etxearen hotsgabetze lanak hobe ditzala eta azkar deza- la nerabe gatazkatsuen kualaldatzeko protokoloa».

## Aizkardi mendi taldeak Pirinioetan itzulia antolatatu du, hilaren 8an

Izena emateko azken eguna hilaren 5a da; Formigaletik aterata zortzi orduko ibilbidea egitea aurreikusten dute

A. Imaz Villabona

Aizkardi mendi taldeak Pirinioetatik zeharkaldi bat antolatu du, hilaren 8an, igandean. Formigaletik abiatuko dira, Pico Arroyo eta Anayet zeharkatzeko. Ibilaldia berriro ere Formigalen amaituko dute.

Mendi itzulia igandean egingo baldin badute ere, Villabonatik larunbatean irtengo dira, 19:00etan. Olaederra kiroldegia- ren aurrean jarri dute hitzordua, eta gaua Piedrahita herriko aterpetxean pasako dute, Jakan.

Aizkarditik azaldu dutenez, ibilbidearen iraupena zortzi ordu ingurukoa izango da. Tarte horretan, 19 kilometro egitea aurreikusten dute.

Izena eman nahi duenak ostegunera arteko epea dauka, eta horretarako 649 71 71 82 telefono zenbakira deitu beharko du, 20:00etatik 22:00etarako tartean. Aizkardi mendi taldearen egoitzara joatea ere nahikoa izango da izena emateko, beti ere, lehen aipatu orduetan.

## Barreterapia eta antzerki inprobisazioa landuko dituzte Asvinenean

A. Imaz Aduna

Udako ikastaroetan barreterapia eta antzerki inprobisazioa landuko dituzte Asvinenean. Adunako arte eszenikoen laborategian, hilaren 14ean eta 15ean egingo dute barreterapia ikastaroa, Aitor Navaroren eskutik. Matrikula 45 euro dira, eta izena emateko [asvineneaskola@gmail.com](mailto:asvineneaskola@gmail.com) helbidera idatzi, edo 627 98 55 68 zenbakira deitu behar da.

Antzerki inprobisazio ikastaroa hilaren 16an, 17an eta 18an egingo dute. Izena emateko helbide elektronikoko bererara idatzi behar da, edo 622 86 79 48 zenbakira deitu. Kasu honetan irakaslea Emmanuelle Thomé izango da, eta hiru eguneko ikastaroaren matrikula 75 euroko da.

## Iragarki laburrak

### ALOKAGAI

■ **Oporretarako apartametuak.** Oporretarako apartametuak alokagai, Peñiskolan. 7 pertsonentzat egokitutako etxea da. Hondartza aurrean dago. 2 balkoi, 2 igogailu, 2 igerileku, aire egokitua eta aparkalekua dauka. Interesatuek deitu 696 60 25 27 telefono zenbakira.

### SALGAI

■ **Autoa.** Autoa salgai. Suzuki Vitara markakoa. Ezaugarri nagusia: 2.000 HDI. 100.000 kilometro dauka eginak, eta oso egoera onean dago. Aukera paregabea! Interesa dutenek, deitu ondorengo telefono zenbakira: 649 51 09 41.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

→ **Laburrak****Alpino Uzturreren irteeran izena eman daiteke**

**TOLOSA** › Alpino Uzturre elkar-teak hilaren 14 eta 15erako mendi irteera antolatu du. Larunbatean Pic Bastan (2.715 metro) igoko dute, eta igandean, berriz, Pic Gela (2.851 metro). Ibilaldiak zazpi ordukoak izango dira. Autobusaren irteera San Frantziskotik 06:00etan izango da, eta 60 euro ordaindu beharko ditu joan nahi duenak. Izena emateko 943 65 27 89 telefono zenbakira deituz edo [alpinouzturre@hotmail.com](mailto:alpinouzturre@hotmail.com) helbide elektronikora idatziz.

**San Joan jaien balantzea egiteko bilera, gaur**

**TOLOSA** › Gaur, asteartea, jai batzordearen bilera izango da. 19:00etan kultur etxean bilduko dira, eta bileraren helburua pasa berri diren Sanjoanetako jaien balantzea egitea izango da.

**Sorturen inguruko batzarra 19:30ean, gaur**

**TOLOSA** › Sorturen inguruko batzar garrantzitsua izango da, gaur, 19:30ean. Tolosako ezker abertzaleak antolatu du, eta egungo egoera politikoaren eta Sorturen inguruan izango da burutuko duten batzarra. Udaltean izango da, eta herritar guztiak batzarrean parte hartzea animatu nahi dituzte.

**Auzitegi Nagusiak Berrobiko parrizidaren epaia berretsi du**

Hamasei urteko eta zortzi hilabeteko espetxe zigorra ezarri diote; 2009. urtean hil zuten bere ugazaita

ren aldeko bere bi anaiek –aurkeztu zuten Gipuzkoako Auzitegiaren aurkako helegitea. Espetxe zigorra 20 urtetara luzatzea eskatu zuten.

Berrobiko gizonetakoak 2009. urtean hil zuten bere ugazaita buruan kolpe bat emanda. Hilketaz gain, 700 euroko lapurreta ere egotzi zioten. Hilketa egin eta bi egunera atxilotu zuten, La Seo de Urgellen.

Kartzela zigorraz gain, sententziak, amaren aldeko anai bakoitzari 17. 472 euroko kalte ordaina ordaintzera behartzen du akusatua.

o [ibarraldea@hitza.info](mailto:ibarraldea@hitza.info)

**Erredakzioa** Berrobi

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak Berrobiko guraso-hiltzaileen zigorra berretsi du. Gipuzkoako Auzitegiak 16 urteko eta 8 hilabeteko espetxe zigorra ezarri zion hiltzaileari eta Auzitegi Nagusiak, orain, berretsi egin du.

Akusazio partikularrak –aita-

**Irudia** Tolosa**EREITE, ATEAK ZABALDUZ**

Ereite elkarreak ate irekien jardunaldia egin zuten, larunbatean. Elkarrea, berriz ere, martxan jarri nahi dute, eta kultur aniztasuna bultzatzea izango dute helburu. San Estebanen duten egoitzan elkartu ziren hainbat, eta munduko hainbat elikagai dastatzeko aukera izan zuten. Hemendik aurrera, Ereite elkarreko kide egiteko aukera ere izango da. IGL.

**Euskal presoek eskubideak aldarrikatu dituzte, asteburuan, Tolosan**

Pello Odriozola dagoen espetxean izan dira hogeita hamar lagun; Etxerateg nazio mailako batzarra egin du

**Eneritz Maiz** Tolosa

Tolosako Herrira mugimendua hainbat ekimen antolatu ditu Pello Odriozola etxean egon behar zuela gogora ekartzeko. Atzo, uztailak 2, 24 urte bete zituen espetxean sartu zutela. 2008az geroztik kalean behar zuten tolosarrak, baina Parot Doktrina ezarri, eta beste hamar urtez luzatu zioten zigorra. Bada, espetxen 24 urte betetzen zituen egunean, *Pello Lizardira!* lelopean elkarretaratzea egin zuten, Tolosan.

Igandean, berriz, Pello Odriozola preso dagoen Zuerako (Zaragoza, Espainia) kartzelara irteera egin zuten. Hogeita hamar bat lagunek egin zuten bidaiak, eta Odriozolaren arreba eta Ibai Iriarte Tolosako alkateak, espetxe zuzendariarekin egoteko asmoa zuten. Tolosako udalbatzak onartutako mozioa eman nahi zioten, baina ez zuten lortu Tolosako Herrirak azaldu duenez: «Igandean, zuzendaria ez zegoen bertan, eta segurtasunekoekin egon behar izan zuten. Hauek emandako mozioa zuzendariari bideratuko ziotela esan zieten».

Urtarrilaren 31n egindako osoko bilkuran onartu zuten mozioa Tolosako udalbatzak. Egin Dezagun Bidea ekimenak eta Lizardi kultur elkarreko aurkeztutako mozioarekin bat eginez, Bildu, EAJ eta Aralar alderdiek Pello Odriozola preso tolosarraren askatasuna eskatu zuten. PSE-EEko zinegotzia abstenitu egin zen bozketan. Bitartean, Zuera espetxera joandako hogeita hamar lagunek, espetxearen kanpoin elkarretaratzea egin zuten. Ez zuten inolako arazorik izan, «ez



Pello Odriozolari babesa agertu zioten, larunbatean. I. TERRADILLOS

zen inor agertu, eta pakean utzi ziguten», gaineratu dute Herrira mugimendukoek. Tolosako Herrirak deitutako ekimenen artean, manifestazioa egin zuten larunbat arratsaldean. Preso tolosarrari babesa erakusteko helburuarekin, jende ugari hartu zuten parte. Herriko kaleetatik barrena ibili ziren, *Bizi arteko zigorrak ez! Pello Herrira* lelopean.

**Etxerateg batzarra, Leidorren**

Etixerat elkarreko kideak, igandean, nazio mailako batzarra egin zuten Tolosako Leidor antzokian. Euskal presoek paraitzen duten sakabanaketa eta salbuespeneko neurrietan oinarritutako espetxe politika behingoz aldarazteko dei zuzena egin zieten Euskal Herriko eragile politiko eta sindikalei, baita jendarteari ere.

Madril eta Paris salbuespenetako espetxe politika eusten eta gogortzen ari direla salatu zuten, eta Euskal Herrian abiatutako aro politiko berriari muzin egiten jarraitzen dutela adierazi zuten. Etixerateg txostenak jasotzen duenez, 634 preso daude Espainia eta Frantziako 88 espetxetan sakabanatuta.

Sakabanaketarekin batera, isolamendua, gaixotasun larri eta sendaezinak dituztenak espetxean mantentzea eta baldintzapeko askatasuna ukatzea dira Estatu Espainiarra eta Frantziarraren

politikaren ezaugarri nagusiak. «Giza eskubideak ez dira saltzen, ez eta negoziatzen ere. Errespetatu ala urratu egiten dago», adierazi zuten

**Herrira mugimendua, Adunan**

Ostegunean, hilaren 5ean, Herrira mugimendua aurkeztuko dute, Adunan. 20:00etan izango da herriko udaletxean.

Bestetik, pasa den ostiralean azken ostirala izan zen, eta herri ra mugimendua herriko herriko datuak bildu ditu: Alegia 6, Amezketak 15, Anoeta 30, Asteasu 50, Berrobi 6, Berastegi 42, Gaztelu 14, Ibarra 42, Irura 21, Ikaztegieta 10, Leaburu 10, Lizartza 44, Tolosa 60, Amasa-Villabona 72 eta Zizurkil 56. Herri guztietan aldarrikapen bera egin zuten: «Bereziki larritzat jotzen dugu gaixorik dauden euskal preso politikoaren presoaren egoera. Berandu baino lehen irtenbide bat behar duen auzia da. Egoera berdinean jarraitzeak sufrimendua, Giza Eskubideen urraketa nabarmena eta tragedia besterik ez baitu ekarriko».

Herrira mugimendutik nabarmendu dutenez; «hamalau dira egun gaixotasun larriak pairatzen dituzten euskal presoak. Espetxean jarraituz gero, osasun egoerak okerrera egingo du, gehienak etxetik ehunka kilometrorra eta osasun arreta egokirik gabe baitaude».

**Tolosako Udala**

IRAGARKIA

2012ko ekainaren 26an izandako Osoko Bilkuran, gehiengo absolutu legalaren aldeko botoekin Ordenantza Fiskalak eta eranskinak aldatzea erabaki zuten (2.1.2 eta 2.1.3. eranskinak). Hartutako akordioak Udaletxeko iragarki taulan ageri dira 30 egun aurretik zehar, iragarki hau G.A.O. agertu eta hurrengo egun aurretik hasita. Epe honetan, 11/1989 Arau Foralak 17. artikuluan aipatzen dituen interesdunek espeditentza aztertzea ahal izango dute eta egokitzat jo dituzten erreklamazioak aurkeztu. Informazio hau emateko epea amaitu ondoren, eta erreklamazioak edo oharrik ez badago, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira eta ez da beste erabakirik beharko.

Tolosan, 2012ko ekainaren 27an  
ALKATEA

**Tolosako Udala**

IRAGARKIA

2012ko ekainaren 26an izandako Osoko Bilkuran, gehiengo absolutu legalaren aldeko botoekin Ordenantza Fiskalak eta eranskinak aldatzea erabaki zuten (2.1.2 eta 2.1.3. eranskinak). Hartutako akordioak Udaletxeko iragarki taulan ageri dira 30 egun aurretik zehar, iragarki hau G.A.O. agertu eta hurrengo egun aurretik hasita. Epe honetan, 11/1989 Arau Foralak 17. artikuluan aipatzen dituen interesdunek espeditentza aztertzea ahal izango dute eta egokitzat jo dituzten erreklamazioak aurkeztu. Informazio hau emateko epea amaitu ondoren, eta erreklamazioak edo oharrik ez badago, hartutako erabakiak behin betikoak izango dira eta ez da beste erabakirik beharko.

Tolosan, 2012ko ekainaren 27an  
ALKATEA

**Sanpedroak**



**JAI GIROA NAGUSITU DA HAINBAT HERRI ETA AUZOTAN**

Udan bata bestearen atzetik etorri ohi dira herriko festak. Sanjoanik pasa ziren, eta egun gutxioren bueltan, San Pedro jaiak handia izan da igaro berri den asteburuan. Hain zuzen ere, Areson, Asteasu, Leaburun eta

Tolosako Amartz eta Urkizu auzoetan nagusitu da jai giroa. Urteik urtera errepikatzen diren ekitaldiak izan ohi izate, eta tartean bertasunak ere bai. Hala, toka eta mus txapelketak, herri kirolak, pilota partidak, baserrie-

tako eskeak, kalejirak, kontzertuak, bazkari eta afariak, herri krosak, bertsoak, haurrentzako jokoak edota dantzak izan ziren ia denetan. Osagai horiek, gero polita izan dute aurtergo sanpedroetan. E. SANAGOLAIT

**Ibarra**



**HAINBAT KULTURAREKIN ABERASTUZ**

Ibarrako Udala eta Alur dantza taldeak elkarlanean antolatutako kulturaz ekimenaren barruan, Saharako, Rapa Nui eta Euskal Herriko kulturen trukea aritu dira egiten asteburuan. Hala, ostrialean dantza eta musika ardatz izan zituen jaialdia izan zen, eta larunbatean kultura

parte hartzaileetako kideak euren lurraldeari buruzko ezagueriak elkarri kontatzen aritu ziren. Gainera, bertiz, Gaztearen musika talerrik izan zituzten, eta atzo ere gazteekin egon ziren dantza, musika eta gorpuz pintaketa nola egiten duten ikasten. U

**Tolosa**



**ORIA IBAIA GARBIAGO**

Urgarden taldeko kideak Ori ibalaren bazterrak garbitzen egon ziren larunbatean. Helburua tolosarrak eurekin batera Ibaia garbitze-ra animatzea zen, eta horrela, bide batez, Ibaia ezagutu eta hobeto zaintzeko sentsibilizatzea, baina Urgardenetik azaldu dutenez, ez zen tolosarrak azaldu garbiketa egitera. Urgardenekoak, hala ere, Zabor ugari jaso zuten kiroldegian ingurutatik. U

**Ibarra**



**IKUSMIN HANDIA MOTO FESTAN**

Langostino Moto Kultur elkartearen X. Moto Festa izan da asteburuan, Ibarra. Urte-oro bezala, ikusmin handia sortu zuten motok, eta, bater ere, plazan eta Euskal Herria kalean egin zituzten jokoak eta akrobaziak. Bada, Jende asko gerturatu zen horiek ikustera, baina, parte hartzailetan behar bada toki bat izan dela azaldu dute. Tolosako Trooper Head taldeko jabeak eman zuen motoaren saria. Francoren guardia pribatuak erabilitako eta egun erabat berriua duen motoarekin. U

**Ibarra**



**'SUA' FILMAREN ESTREINALDI BEROA**

500 lagun inguru izan ziren ostiral iluntzean Tolosako Leidorren, 'Sua' filmaren estreinaldian. Eneko Artzaren Lagunak elkarteak kideek herriaren areta bereganatu zuten, modu berezian allegatu baitziren aretora, zaldi gainean, gurdiekin eta garallo jantziak soinean zituztela. «Oso gutura» azaldu dira izandako harrerarekin, eta eskerak eman diekie berriari u diren gutie. Bestalde, uztailaren 12an, osteguna, Ibarako plazan izango da ikusgai Ibarren lana. U

**Iruia**



**ESPERO BAINO JENDE GUTXIAGO**

Iruirako ikastolak antolatuta, X. Garagarido Azoka izan dute herrian, asteburuan. Antolatzaileek azaldukoaren arabera, ostriala eta larunbata izan dira jendetsuenak, baina espero baino gutxiago izan da, eta ondorioz, diru gutxiago bildu dute. Berriantartzen den diru ikastolaren gastu aurre egiteko erabiltzen dute. U

**Tolosa**



**JAUZI BIKAINAK SKATEAREN GAINEAN**

Skatearen festa izan zen larunbatean Usabalen. Ikusizun polita eskaini zuten skate zaleek kiroldegian skate parkean. Gainera, erakustaldiaz gain, txapelketa ere izan zen. Tolosako Bigarren Skate Txapelketa, hain zuzen, Emakumezkoetan lanre Eorriaga izan zen irabazlea eta gizonzkoetan, Haritz Pagola. U

**Tolosa**



**JENDE UGARI OSASUN PUBLIKOAREN ALDE**

Ehunka lagunek egin zuten bat larunbatean Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde (TOPA) koordinakundeak defuturko manifestazioarekin. Kudea-herria publikoko eskualde ospitale publikoa, nahiz espezialitate ambulatorioa erabat horritzea eskatzen dute koordinakundetik. Halaber, Gipuz-

koako gainerako eskualdeko ospitale publikoetako langilegoa eta Asuncion klinikako alderatuta, Tolosakoan %53ko gabezia dagoela salatu dute. Manifestazioan Tolosako nahiz Tolosaldeko elkarte, erakunde eta sindikatu ugari atxikitu zituzkion. U

Uda honetan zatoz  
**HITZ**aren itzalera

Elkarlanean antolatutako kulturaz ekimenaren barruan, Saharako, Rapa Nui eta Euskal Herriko kulturen trukea aritu dira egiten asteburuan. Hala, ostrialean dantza eta musika ardatz izan zituen jaialdia izan zen, eta larunbatean kultura parte hartzaileetako kideak euren lurraldeari buruzko ezagueriak elkarri kontatzen aritu ziren. Gainera, bertiz, Gaztearen musika talerrik izan zituzten, eta atzo ere gazteekin egon ziren dantza, musika eta gorpuz pintaketa nola egiten duten ikasten. U

hitz



## Iker Karrera Lavaredo Ultra Trail proba irabazi du

**I. Garcia Landa** Amezketza

Iker Karrera amezketarrak beste garaipen bat lortu du ultra trail probetan. Oraingoan Lavaredo Ultra Trail lasterketa irabazi du, 118 kilometrokoa, 12 ordu eta 26 minutuko denbora eginez. Bigarrenari, Seb Chaigneau korrikariari, 16 minutuko aldea atera zion Karrera. Hasieratik bi mendi lasterkariak probaren aurrean jarri ziren, eta hirugarrenari alde handia atera diote.

## Txoko 33 taldeak irabazi du Tolosa Kup txapelketa

**I. Garcia Landa** Tolosa

28 taldek parte hartu dute Tolosa Kup txapelketan eta Txoko 33 taldeak irabazi du. Finalean The Patxis taldeari 3-2 irabazi zion. Hirugarren postuan The Bajalis taldea sailkatu zen eta laugarrenean 30 Xentimo. Talde mistoentzako saria Plaza Criztales taldeak jaso zuen.

Arsenal elkarteak antolatutako duen XXIV. San Joan Areto Futbol Txapelketaren finalak jokatu dira asteburuan Usabal kiroldegian. Nesketan, alebinetan, Izarrrak, Lehoiak, Bai o Bai, eta Berastegi Baserritarrek izan dira lehenengoak; benjaminetan, Zurrunbiloak, Ibartarrak, Hirukideko neskatxak, eta Asteasu. Mutiletan, alebinetan, Iurre Taberna, Seikin, Tximistak Samaniego, eta Amets Taberna izan dira lehen lauak; benjaminetan, Nekaezinak, Samaniego X-Box, Tximistak Laskorain eta Tximistak Hirukide.

## Xabi Alonsok Eurokopa irabazi du Espainiako selekzioarekin

**I. Garcia Landa** Tolosa

Xabi Alonso tolosarrak Eurokopa futbol txapelketa irabazi du Espainiako selekzioarekin. Orain lau urte ere irabazi zuen txapelketa bera, eta orain bi urte Munduko Futbol Txapelketa eskuratu zuen. Alonsok txapelketa oso txukuna egin du eta bi gol lortu ditu.

# Jon Jaunarena, jaun eta jabe

Pilotari leitzarrak Bigarren Mailako buruzburukoa irabazi du Ezkurdiaren aurka, partida gogor batean

**Imanol Garcia Landa**

Iruñeko Labrit pilotalekuan Joseba Ezkurdia eta Jon Jaunaren arteko eskuz banakako Bigarren Mailako Txapelketa leitzarrak irabazi du. Aurretik jarri zen Jaunarena partidaren hasieran. Ezkurdia parekatu zitzaion ondoren, eta hamarna berdinduta egon ziren, baina 14na ere. Baina, partidaren azken zatia Jaunarenentzat izan zen. Azkenean, 22-16ko emaitzarekin, berak jantzi zuen txapela. Garaipen honekin, beraz, datorren urtean lehen mailan ariko da.

Jaunarena «oso pozik» azaldu zen partidaren amaieran. Partida «oso gogorra» izan zela adierazi



Jon Jaunarena. E. EZEIZA

zuen, baina bukaeran «pixka bat gehiago» izan zela. Partidaren hasieratik ikusi zuen leitzarrak atzean erasota egingo ziola min aurkariari, eta horregatik, gutxi eraso du aurrean. 242 pilotakada izan zituen guztira partidak. Zazpi tanto saket egin zituen Jauna-

renak, eta Ezkurdiak, berriz, sei lortu zituen.

«Sari ikaragarria» dela berarentzat txapelketa irabazi eta lehen mailara igotzea esan zuen, eta datorren urtean, «ahalik eta ongien» egiten saiatuko dela. Lehen aldia da pilotari gazte batek urte berean banakakoa eta binakako txapelketa irabazten dituela.

**Altzelai, irabazle**

Aurtengo Elgetako Lau t'erdiko txapelketan Tolosaldeko pilotariak izan dira protagonista. Lau finalistetatik hiru eskualdekoak izan dira eta, besteak, Irribarriak, Amezketako Zazpi Iturri elkarteak da. Azken honek Jokin Altuna elkartekide amezketarrari irabazi zion kadete mailako finala. 13-22 galdu zuen Altunak, eta zenbait jokaldi on egin bazuen ere, Irribarriak bere indarra baliatu zuen amezketarrari irabazteko.

23 urtez azpiko mailan, Julen Altzelai alkizarrak 22-9 irabazi

zion Xabier Urbieta asteasuarrari. Azken honek ezin izan zuen bere jokoa erakutsi eta partida hasiberritan 10 tanto jarraian jaso zituen. Altzelaik bere sasoiak baliatu zuen finalean Urbietari irabazteko.

**Bengoetxea Irujoren aurka**

Bengoetxea VI.ak Irujoren aurka jokatu du Nafarroako Lau t'erdiko finala. Leitzarrak Olaizola II.ari 18-22 irabazi zion. Irujoren aurka beste leitzar batek jokatu zuen, Barriolak, baina honek 22-5 galdu zuen. Iaz Bengoetxeak irabazi zuen txapelketa, Irujoren aurka 22-10 irabaziz, hain justu. Hilaren 7an, San Fermin egunean, jokatu da finala.

**Zeberio, txapeldunorde**

Erremonteko Gipuzkoa Torneoaren finala galdu zuen Patxi Zeberio larunbatean. Elduaindarrak Ion atzelariarekin batera 40-30 galdu zuen Urriza eta Etxeberria III.aren aurkako neurketan.

## Berrobik finalerako txartela lortu du Bidegoiani bere etxean irabazita

Herriarteko Txapelketaren finala jokatu dute berrobitarrek Hernaniren aurka

**I. Garcia Landa**

Berrobik Herriarteko Txapelketaren finala jokatu du, Bidegoianen aurkako finalerdia irabazita. Joanekoan 2-1 irabazi zuen Berrobik eta, itzulerakoan, kanpoan jokatu, berriz ere 2-1 irabazi zuen. Kadeteetan 7-22 irabazi zuten berrobitarrek, jubeniletan 22-12 gailendu ziren bidaniar goiazarrak, eta nagusietan 22-12 irabazi zuten Berrobikoek.

Arkaitz Aurkia Berrobiko taldearen arduraduna oso pozik dago lortutakoarekin: «600 biztanleko herri batean taldea osatzea zaila izan da, beraz, gainera finlaera iristea askoz zailagoa da». Berrobin 2-1 irabazi zuten etxekoek eta 31 tantoko diferentzia eskuratu zuten. Bidegoianen, lehenengo partidari, Berrobiko kadeteek partida oso ona jokatu

zuten eta horrek neurketa guztia baldintzatu zuen. «Etxean, joaneko neurketan, 5-11 galtzen joan ziren eta partidari buelta ematea lortu zuten», gogoan du Aurkiak. «Bidegoianen partida oso ona egin zuten biek, presiopean ondo funtzionatu dute».

Hernaniren aurka jokatu dute finala, igandean, Donostia-ko Atano III.a frontoian. «Irabaztera joango gara», azaldu du Aurkiak.

Bere aldetik, Luis Galarraga Bidegoiango taldearen arduradunak neurketa Berrobin galdu zutela azaldu du: «Eguna txarra tokatu zen, han zerbait gehiago egiteko aukera izan genuen eta». Berrobitarrek «konfiantza askorekin» joan zirela Bidegoianera azaldu du Galarragak: «Kadeteetan ondo hasi ginen, baina tantoak beraien aldera joaten hasi ziren, eta horrek konfiantza handitu zuten berrobitarrei».

Herriarteko Txapelketan egingakoari buruzko balantze «oso ona» egin du Galarragak: «Oso pozik gaude gure moduko herri txiki bat finalerdietara iritsi delako. Iaz final laurdenetara iristi gi-



Goian, kadeteen partida, eta, behekoan, jubenilak, Bidegoianen jokatu dute itzulerako neurketan. IGL

nen eta aurreko pauso bat gehiago egin dugu. Eatorren urtean finalera iristeko aukera izaten dugun».

Berrobitarren aldetik kadeteetan Xabier Zubiriak eta Aitor Erauskinek jokatu zuten, jubeniletan Amaur Alberdi eta Jon

Elustondo aritu ziren, eta nagusietan Aratz Irazusta eta Iñigo Altona. Bidegoiango taldean, kadeteetan Josu Urdapilleta eta Ander Urdapilleta, jubeniletan Aritz Zelaia eta Egoitz Aburuza, eta nagusietan Koldo Galarraga eta Joseba Senperena aritu ziren.

# Alatzne Etxeburua, Gipuzkoako azkarrena segan

Lizaso, Ormaetxea eta Kanflanka gizonetzkoen Euskadiko Segatxapelketako finalerako sailkatu dira

**I. Urkizu** Zizurkil

Alatzne Etxeburua zizurkildarra irabazi zuen, pasa den igandean, Zizurkil Goian ospatu zuten Gipuzkoako Azkartasuneko Segatxapelketa, iaz txapeldun suertatutako Arrate Garin mendean hartuta. Gizonetzkoen mailan ere Igor Esnaola legorretarra, egin beharreko lanak iazko txapeldun Juanjoxe Garinek baino azkarrago amaitzea lortu zuen.

Zizurkilgo Nekola baserriko soroan jokatu ziren emakumezkoen nahiz gizonetzkoen txapelketak, 200 ikusle ingururen aurrean. Emakumezkoen kasuan, 50 metro kuadroko bina sail ebaki behar izan zituzten, ahalik eta azkarren; txukuntasuna ere kontuan hartu zuten epaileek. Gizonetzkoek, berriz, 100 metro kuadroko bina sail ebaki behar izan zituzten.

Alatzne Etxeburuak 03:42 minutuko denbora behar izan zuen lanak betetzeko, eta Arrate Garin bigarrena izan zen 03:52 minutuko denborarekin. Jarraian, Aina Otamendi ibartarra (05:23), Alaitz Imaz hernaldetarra (06:05), Ainhoa Galarra ibartarra (06:56) eta Igaro Balda hernaldetarra (07:51) sailkatu ziren.

Gizonetzkoen saioan, Igor Esnaola irabazle legorretarra 05:00 minutuko denbora behar izan zuen lanak betetzeko. Gaintzeko segalari guztiak eskualdekoak izan ziren: Juanjoxe Lizaso asteasuarra (05:15), Mikel Alkorta asteasuarra (05:53), Garikoitz Etxeberria amasarra (06:20), Jokin Garmendia baliarraindarra (06:29), Pello Argia zizurkildarra (07:06), Unai Iraola ikaztegiatarra (07:38), Andoni Dorronsoro tolosarra (07:50) eta Joakin Garmendia anoetarra (10:15).

**Eskualdekoak Euskal Herrikoan** Pasa den larunbatean, berriz, Euskal Herriko Segatxapelketako kanporaketak jokatu zituzten Erratzuko (Baztan, Nafarroa) Iñarbil auzoko belardian.

Bertan, Juanjoxe Lizaso asteasuarra, Jexuxmari Ormaetxea



Eskualdeko hamahiru segalari aritu ziren lehian, Zizurkilen. E. SARASOLA

Urki orendaindarra eta Jon Kanflanka leitzarra finalerako sailkatu ziren, bigarren, hirugarren eta laugarren postuak, hurrenez hurren, eskuratuta. Amasa-Villabonako Garikoitz Etxeberriak, berriz, zazpigarren egin zuen proban.

Kanporaketa bi multzotan jokatu zuten, eta lehen multzoko segalari bakoitzak bosna sail izan zituen lana egiteko. Jon Kanflanka leitzarra bigarren postua har-

tu zuen hasiera-hasieratik bere multzoan, eta horrelaxe amaitu zuen saioa, 1.307 belar kilo moztuta. Garikoitz Etxeberria amasarra, berriz, leitzarrari eutsi zion hasieran, baina pixkana atzean geratu zen; 1.097 kilo bildu zituen.

Kanporaketako bigarren saioan, segalariak launa sail izan zituzten ebakitzeko. Juanjoxe Lizaso asteasuarra aurretik jarri zen sailak ebakitzeko hasiera-hasieratik, eta indartsu aritu zen proban;

bere multzoko lehenengoa izan zen, 1.482 kilo bilduta.

Jexuxmari Ormaetxea Urki orendaindarrak, berriz, hirugarren sailean lortu zuen bigarren postuan jartzea, eta halaxe mantendu zen amaierara bitarte, bildutako 1.471,5 belar kiloekin.

Lizasok, Ormaetxeak eta Kanflankak datorren uztailaren 15ean jokatuko dute finala, Leitzan, 12:00etan.

● [tolosaldea@hitza.info](mailto:tolosaldea@hitza.info)

## Iraola eta Garmendia Euskal Herriko Trontza Txapelketako finalera

Usurbilgo kanporaketan seigarren postua lortuta, irailearen 1ean jokatuko duten finalerako sailkatu dira

**I. Urkizu** Alegialdea

Euskal Herriko Trontza Txapelketako finalerako txartela lortu zuten, pasa den igandean, Unai

Iraola ikaztegiatarra eta Jokin Garmendia baliarraindarrak.

Usurbilen jokatu zuten kanporaketa, eta 06:15 minututan bete zituzten egin beharreko hiru lanak, seigarren postua eskuratuz.

Datorren irailearen 1ean, euren batera ariko dira, Donostian, Kañamares-Mugertza herenungo irabazleak, eta Barberena Iraizoz, Etxebarria-Goioaga, Ardeo-Zaldua eta Cano-Maiza bikoteak.

## Josetxo Urrutia garaile, Iparraldeko Joku Txapelketan

Burgiko (Nafarroa) saioan erakustaldia egin behar izan zuen, Ariztegik parte hartu ezin izan zuelako

**I. Urkizu** Leitza

Pasa den igandean, Nafarroako Iparraldeko Joku Torneoaren hirugarren eta azken jardunaldian, Josetxo Urrutia leitzarra garaile suertatu zen harrijasotzen.

Burgin (Nafarroa) jokatu zituzten saioak, eta harrijasotzen egin beharreko lanak honakoak izan ziren: 125 kiloko zilindroa minutu batean jasotzea, 112,5 kiloko kubioko minutu batean jasotzea eta 100 kiloko bola minutu batean altxatzea.

Urrutia leitzarra Xabier Ariztegiarekin lehiatzekoa zen, baina azken honek ezin izan zuen hirugarren jardunaldian parte hartu; Urriak, beraz, erakustaldia eskaini zuen Burgin.

Hau dela eta, Nafarroako Ipa-

rraldeko Joku Txapelketako lehen bi jardunaldietako altxaldiak batu zituzten antolatzaileek, eta leitzarra suertatu zen garaile, 6.775 kilo altxata; 3.625 altxa zituen lehen jardunaldian, eta 3.150 bigarrean.

**Txingan ere ezin lehiatu**

Josetxo Urrutiak ere ezin izan zuen lehiatu txinga-eramatean.

Horrela, lehen bi jardunaldietako metroak soilik kontatu zituzten, eta laugarren postua eskuratu zuen leitzarra.

### Hilberriak eta urteurrenak

#### ESKELAK

943-65 56 95

[tolosaldea@hitza.info](mailto:tolosaldea@hitza.info)



#### BITTOR LIZARRALDE URRETA

Ez agurrik, ez adiorik geroarte baizik.



Tolosan, 2012ko uztailaren 3a



#### URTZI BASTERRIKA URKIA

Nahiz urte asko ez diren pasa gugana bildu zinela jakin guretzat, familiako bat gehio izan zarela nahiz horren azkar banatzerikan ez genuen uste bela! Gaur ere zutaz oroitu gara aurreko urtetan bezala.

URRETA FAMILIA

Villabonan, 2012ko uztailaren 3a



≈ 24°  
≈ 15°

GOIZA	EURIA
ARRATSALDEA	LAINOTUTA
BEROENA	20°
HOTZENA	16°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza.** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldea.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarralde:** 687 410 118. ibarralde@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria  
Hedabideak  
SM-ko kideak:

BERTAKO  
HEDABIDEAK



Galtzaundi  
euskara  
taldea



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

Hitza-k  
Bai  
Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Hernalde, Irura, Larraul, Leitza, Lizartza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.
- **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea, 43. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanenen eta iritzien erantzukizunik.

## Agenda

### DEIALDIK

- **Tolosa.** Sortu alderdiaren inguruko herri batzarra egingo du ezker abertzaleak, gaur, 19:30ean, udaletxean.
- **Tolosa.** Sanjoanetako balantzea egiteko bilera egingo du jai batzordeak, gaur, 19:00etan, kultur etxean.

### ERAKUSKETAK

- **Alegia.** Mirari Bengoaren lanak ikusi ahal izango dira herriko festak hasi bitarte, Jubilatuen tabernan.
- **Tolosa.** Ni Pinotxo naizera-kusketa Topic zentroan irailak 23a arte. Bisita antzetzutak egin dituzte ostiraletan eta larunbatetan.

Emanaldi «bikainak» eskaini dituzte eta antotzaileak benetan gustura geratu direla azaldu dute

**Rebeka Calvo** Tolosa

«Dena oso-oso ondo joan da; ikusleak gustura geratu dira, musikariek emanaldi bikainak eskaini dituzte eta jarrera benetan ona izan dute, ikusle guztiak txundituta geratu dira eta harrera ezin-hobea egin diete taldeei... Gu ere oso gustura geratu gara. Balorazio oso positiboa egiten dugu», azaldu du Iñigo Martinek, Tolosandblues jaialdiko koordinatzaileak.

Tolosako blues jaialdiak geroz eta sona handiagoa du, eta ez bakarrik ekartzen dituzten artistengatik, baita herritarren parte

# Tolosandblues-eko musikariek ikusleak txunditu dituzte

hartzearengatik ere: «Gertuko jaialdi bat da, herritarrek bizitzen dutena, eta musikariek ere oso gustuko dute hori».

Aurten, gainera, kontzertuak herriko gune gehiagotara zabaldu dituzte, eta ordutegi gehiago izan dira aukeran; ohiko gune ez gain, Ilargi tabernaren kanpoan izan dira emanaldiak eta baita Maria Luisa Agirre plazan ere, Tontokalen, alegia. «Jendeak ondo hartu ditu aldaketak, eta oso emanaldi onak ikusteko aukera izan dugu», azaldu du.

### Aurtengo gakoak

Aurtengo musikariei dagokionez, izarra Velma Powell izan da. Bluesdays taldearekin eskaini

zuen kontzertua larunbat gauean eta emanaldi «bikaina» eskaini zuen. «Goi mailako artista da eta agerian utzi zuen Tolosan», esan du Martinek.

Ahoso inua jotzen duen Joan Pau Cumellasek eta Miguel Talaverak, beren aldetik, hiru emanaldi eskaini zituzten (larunbat eguerdian eta gauean, eta igande eguerdian) eta «denak txundituta utzi zituzten, Cumellasek ahosoinua nola jotzen duen ikustea gozamen da. Astesuarra tabernaren kanpoan jendez inguratuta bukatu zuten, jendearentzat ezustekoa izan zen», esan du Martinek.

Belceblues taldea ere aipatu du koordinatzaileak: «Emanaldi in-

dartsua eskaini zuten». Ezin ahaztu, hala ere, Down Town Trio eta White Towels Blues Band taldeak, biek kontzertu bikainak eskaini zituzten, blues musikaz gozatzeko aukera emanaz.

### Esker hitzak

Bukatzeke Martinek esker hitzak izan ditu: «Etorri den jende guztiari eta baita laguntza eman duten guztiei ere: Tolosako Ero Etxe elkarteari eta bertako hiru sukaldari bikainei, Martin, Josu eta Sabinori; plaza Berriko eta Euskal Herria plazako ostalariei; Ilargi, Orbel eta Astesuarra tabernei; Abaetxeri; Sukia harategiari...».



Cumellas eta Talavera Astesuarra kanpoan, Velma Powell & Bluesdays plaza Berrian, eta White Towels Blues Band Frontoi kafetegian. ANIEL ALONSO

## Agurrak



### Zorionak Aitor!

Lizartzako ezker abertzalearen partetik.



### Zorionak!

Zuen ezkontzako 25. urteurrena dela eta, zorionak eta ondo pasa.



### Zorionak Maizen!

Segi txukun txukun sareratzin eta tropelaren kontura soldata irabaziko duzu! Ondo pasa eguna!